

# ...eta **kitto!**

694 zkia. 2009-X-16

ASTEKARIA



# Mendizale txikien egun handia Arraten

## **EUKi**

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



**Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak**

**ZEZEN  
BIDE**



**AUTO  
ESKOLA**


**AUTO  
ESCUELA**

**CURSOS INTENSIVOS**

**ORDUTEGIA:  
09.30-13.00  
15.30-20.30**

**GIDA-BAIMENAK**

**San Andres, 1 ac  
Tel. 943 20 34 45  
EIBAR**



**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

*...eta kitto! aldizkarian  
duzu aukera (943 20 67 76)*



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekararen E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKTETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Eibarko Klub Deportiboa

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ihintza Fernandez

**TIRADA:**

7.950 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**EZARRI.-** Sukarreakin dagoena. "Lagun gaixua ikusten izan gara eta ezarrixa topau dogu".

**EZE.-** Ezen, esaldi kompletiboetan eta konsekitiboetan erabiltzen da, normalean, luze samarrak direnean. Gaztelerazko 'que'. "Esan zestan eze, ixak-eta berandu etorren eta autua konpondu barik eukanez, bixamonian emongo estala agindutako liburua". "Hain ona dagok ardaua eze, pena emoten jestak saltzia".

**EZEINDU.-** Desegin. "Gau baten ezeindu eben urte askoko lana".

## ESKUTITZAK

### EEREPRESIOAREN BIDETIK

Sonia Jacinto, Harkaitz Rodriguez, Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Rufi Etxeberria, Mañel Serra, Amaia Esnal, Txelui Moreno, Miren Zabaleta eta Ainara Oiz dira atzo azken operazio politiko-polizialean atxilotuta abertzale independentistak.

Espainiako Barne Ministerioak diseinaturiko eta Baltasar Garzonek komunikabideen bitartez publikoari eskainitako operazio hau ezin da ulertu egungo une politikoa kontutan hartu gabe. Operazio hau guztiz lotuta dago Ezker Abertzalearen jardura politikoarekin, eta egun duen estrategia politikoarekin. Estrategia politiko honen ondorioz eta inizatiba politikoa berreskuratuta Ezker Abertzaleak Herri honek bizi duen gatazkari eskaintzen dion irtenbide demokratikoari izugarriko beldurra diote.

Espainiako Gobernuak, errepresio gehiagorekin, orden konstituzional espainolarentzat suposatzen duen mehatxu berriarekin amaitzea erabaki du. Eztabaida demokratikoari izugarriko beldurra dio Espainiako Gobernuak, azken negoziazio prozesuan nazioarteko begiraleen aurrean agerian utzi zuen moduan. Eta orain are gehiago, ondo dakitelako ezker abertzalea dela aldaketa politiko eta sozialaren motorra, Euskal Herriari eszenatoki demokratiko berri bat ekarriko dion mugimendu politikoa delako, alegia.

Ezker abertzaleak iragarri berri du inizatiba politiko berri bat beste alderdi eta kolektiboekin batera elkarlanean aritzeko, Euskal Herriaren independentzia helburu izanik, eta horrek dardarka jarri du Espainiar Estatuak. Ezker abertzaleak bere printzipio eta helburuei etsiz jarraitzen du lanean eta horrek agerian uzten du euren estrategia errepresibo bortitzaren balio eza.

Estatuak ez du gatazka politiko-armatuarekin amaitu nahi, Estatuak benetan ezabatu nahi duena Ezker Abertzalearen proiektu politikoa da, Euskal Herria aske, independente, sozialista eta euskalduna hain zuzen ere. Horren adierazle Erkide Autonomikoaren Espainiako Gobernuaren Ordezkarria den, Mikel Cabiecesen hitzak: "Ezker abertzaleren proiektu politikoarekin amaitu behar da".

Mina egingo digute, baina ez gaituzte mugiaraziko gure bidetik. Helburua argi dugu, estrategia eragin-korra diseinatzen ari gara, batzuk atxilotu dituzte, eta orain guri tokatzen zaigu harro eta tinko eurek hasitako lana bukatzea eta gauzatzea. Beste batzuk bi-dean geratuko badira ere, orain arte erakutsitako determinazioarekin jarraituko dugu eta argi eduki etsaiak erakusten duen errepresioaren dimentsioa duten beldurraren termometroa besterik ez dela.

EIBARKO EZKER ABERTZALEA

## asteko HEMEROTEKA esaldiak

"K+K=KK. Kulturari Krisia gehitzea aski da kulturaren balio estrategikoa aldarrikatzen duen diskurtsoaren benetako balioaz ohartzeko. Ikerketa-Garapena-Berrikuntza aldarrikatzen dituzte behin eta berriz krisia gainditzeko errezetatzat; kultura, aldiz, berez hazten den basalandarea dela uste dute, antza. Ezer onik ez da izango harik eta kulturak ere bere IGB propioa behar duela ohartu eta onartu arte. Hori gabe, formulak beti emaitza bera emango du."  
(Joxerra Gartzia, idazlea eta irakaslea)

"Emakume musulmanei beloa erabiltzea debekatu dienean, Frantziak laiko izateari laga dio eta konfesionala bihurtu da. Zapi hori musulmanen nortasun ikurra da; hala, Frantzia sineste baten aurkako errepresioarekin bihurtu da debeku hori ezartzerakoan. Guxieneko giza eskubideak errespetatzen diren bitartean, estatuak ezin ditu sinesteen adierazpideak debekatu. Mugak non dauden? Argi dago klitoria moztea eta harrikatzea ezin direla onartu"  
(Jaume Botey, Cristianisme al segle XXI-ko kidea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

### KONTZERTUA GAZIETXEAN

Asua Erreka kalean dagoen Tallarra gaztetxeok azken urteotan bete izan duten eraikina egun batzuren buruan hustu beharko dutela jakin berri dute eta, horren aurrean, "Tallarratik ez dira pasauko" izenburuko kontzertua antolatu dute bihar zapaturako. 22.30etatik aurrera Terror y Miseria, Kaosaren Erasoa eta Karkaba taldeek jardungo dute.

### PROSTITUZIOAREKIN LOTUTAKO EPAIA

Ibur-Errekako Zapai eta Stress klubetan prostituzioa ustez bultzatzeagatik hiru gizonetako epaitzen dihardute. Fiskalaren salaketaren arabera, gizonak Brasil eta Boliviatik etorritako andrazkoak hartu eta, 2.700 euroko zorra euren gain ipinita, klubetan prostituitzera behartzen zituzten. Emakumeetako batek egindako salaketak eragin ditu atxiloketak.


### FAMILIAK ERE KONTATZEN DU

Familia giroan irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin, 'Familia ere kontatzen du' programa garatuko du Juan San Martín Liburutegiak. Saioak 2005ean jaiotako umeentzat eta haien gurasoentzat dira (ume bakoitzak saio bakarrean hartuko du parte) eta izena emateko azken eguna gaur da (oraindik toki libreak geratzen dira). Saioak urriaren 20an eta 27an eta azaroaren 3an, 10ean eta 17an izango dira.

## Eibartarrak Bi Gira kantu lehiaketan

**EUSKAL TELEBISTAKO BI GIRA KANTU LEHIAKETA BERRIAN JARDUNGO DUTE BEATRIZ GARCÍA, MIREN ZULAIKA ETA MIREN OTEIZA EIBARTARREK.** Itxaso Martinek aurkeztutako saioa zapatuan estreinatuko da, ETB-1ean, 22.00etan eta bertan hainbat herritako 12 bikotek jardungo dute lehian, abesti ezagunak abesten. Beatriz Garciak bere alaba Maite Zulaiakarekin osatu du bikotea eta Miren Oteizak, berriz, Aramaionako lagun batekin abestuko du.

Biharko lehiakideak Bilbo, Lezo, Barakaldo, Gasteiz, Leitza eta Oñatitik joandakoak izango dira eta epaimahaiak sei bikote horietatik bat lehiaketatik kanpora laga beharko du. Beste sei bikoteek, tartean eibartarrenak, hurrengo zapatuan, hilaren 24an abestuko dute eta saio horretan ere beste bikote bat kanporatuko dute epai-



Itxaso Martinek aurkeztuko du saioa zapatuan 22.00etan ETB-1ean.


mahaikideek. Taularen beste aldean ere aurkituko dugu eibartarrak: Estitxu Sudupe, Oihan Vega eta Esti Pinatxorekin batera, Fran Lasuen musikariak osatuko du lehiaketako epaimahaia. Lehiaketako bikote onenak 10.000 euroko saria jasoko du.

## Alfak hitzarmena sinatu du Imaginarium-ekin

**HAUR TXIKIAK DAUDEN FAMILIEN PREMIAK ASETZEKO MODUKO ELEKTRAGAI-**

**LU SORTA BERRIA DISEINATU** eta merkaturatuko du Alfak, Imaginarium-ekin elkarlanera-

ko sinatu duen hitzarmenari jarraituta. Elektragailu sorta berriak egunero etxe-barruko sukaldaritza, kontserba eta antolakuntzarekin lotutako jarduerentzat soluzio integratuak eskaintzea bilatzen du. Lehen pausoa emana dute dagoeneko: Imaginarium-ek bere katalogo berri Alfa Box elikagaiak etxean bertan hutsean ontziratzeke makina sartu du. Eta 2010. urterako modelo berri bi gehitzeko asmoa dute, 'Imaginarium by Alfa' markarekin.



## Ipuruako Eroski berria jasotzen hasi dira

**EROSKI-K IPURUAN ORAIN ARTE IZAN DUEN DENDAREN AZALERA BIKOIZTEA AHALBIDETZEKO BEHARRERAK** aurrera dira. Uztailean Lambrettak bete zituen pablioak eraitsi zituzten eta hurrengo lurzorua berdintzeko beharrez jardun dute. Behin lurra berdinduta, hurrengo fasean sartu dira beharrak: eraikin berria jasotzen hasi dira. Aurreikusitako epeei jarraituta, urtebete inguruko iraupena izango dute denda berria jasoitzeko beharrek. 2010. urteko azarorako Eroski berria zabalitzeko moduan egotea espero dute. Hipermerkatu berriak sal-

mentarako 6.700 metro izango ditu azalera eta horrekin guzuzera bezalako herri batek izan

ditzazkeen premiei hobeto erantzuteko aukera izango dutela pentsatzen dute.



6.000 metro karratutik gora izango ditu Eroski-ik Ipuruan zabalduko duen hipermerkatuak.

## Sostoa Abesbatzaren Eguna

**BIHAR ZAPATUA SOSTOA ABESBATZAK EGUN BEREZIA OSPATUKO DU, ABESBATZAREN SORRERAREN 25. URTEURRENAREN TESTUINGURUAN.** Abesbatzeko gaur eguneko kideekin batera, inoiz Sostoa parte hartu izan duten beste batzuk elkartuko dira bihar, 12.30etan Portalean, erakusketa aretoan. Bertan aurreko barixakuan inauguratu zen abesbatzaren inguruko erakusketa dago martxan. Hilaren 25era arte bisitatu daiteke abesbatzaren 25 urteko ibilbideari erreposoa ematen dion erakus-



Urte hasierarekin hasi zituzten urteurrenaren ospakizunak. / LEIRE ITURBE

keta, martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara. Behin taldea elkartuta, herriko taberne-

tan txikiteoan eta kantuan ibiliko dira, ondoren Arrate hotelean denek elkarrekin bazkaltzeko.



Jose Luis Martín

## Krisia guztiarentzat

**A**zalpen bat: ekonomian dudan formazioa ozta-oztakoa da, unibertsitatean pare bat urtetan jasotakoa eta liburu eta egunkarietatik hartutakoa besterik ez. Baina gero eta ezuste handiagoak hartzen ditut. Urtebete ere ez da izango krisia pizten hasi zela, bere gordintasun guztiarekin, nazioarteko finantza sisteman, entitate batzuen gestio negargarriaren eraginez. Halaber, ekonomista gutxi izan ziren aurrikusteko gauza. Hori bai, orduan kale egin zuten guztiak noizko irtengo garen esateko gai dira, zehaztasun berberaz. Ekonomistak fenomenoak dira pasatutakoa azaltzen, baina flako azaltzen zaizkigu aurrikuspenak egiterakoan. Bitxia da ere finantza sistemako -arazoaren iturria- elementu batzuei entzutea zelan botatzen dieten errua gobernuei, eskubete eta ziztu bizian dirua eman dieten haiei, eurak inolako erantzunik onartu barik. Bitxia da ere entzutea enpresa elkartearen arrazamendua, esaten dutenean enplegu ezaren arazoak kaleratzea erraztetik etorriko dela.

Telefónica edo Repsol moduko enpresak nagusi dira euren arlo ekonomikoetan. Enpresa handiak, ondo gestionatutakoak eta teknologikoki aurreratuak sektore estrategikoetan, irabazi estratosferikoekin; hori, ziur. Horregatik iruditzen zait inmorala, gasolina bota ondoren, transakzioaren frogagirian euro batetik gora gastatzera bultzatzea zozketa baten parte hartzeko edo telefonikako konpainiek mezu inuzenteak bidaltzera animatzeko auto bat irabazteko. Horrek badu zentzurik? Ez eman buelta gehiago: emaitzen kontuak biribiltzen dituzte horrela, exekutiboek bonusak jasotzeko. Gero, 55 urterekin jubilatuak dira, urtero hiru milioi euro kobratuz; hori bai, erretiratu aurretik, kaleratzearen merkatzea eskatuko dute.

## Udalak adingabeentzat zentrorik ez zabaltzea eskatu du

**ADINGABEKOEN EGOITZEN HARIRA, UDALEKO BOZERAMAILEEN BATZARRAK GUTUNA IGORRI DU ASTE HONETAN** bertan Foru Aldundira, Maite Etxaniz Balentziaga Gizarte Politikarako sailburuari hainbat azalpen eskatuz. Gutunak jasotzen duenez, “uztailaren 10ean, Eibar-ko udaleko Bozeramaileen Batzarrak –udal ordezkariak duten alderdi politiko guztiak daude batzar horretan- Adingabeak babesteko Debako zentruaren inguruan eta Gipuzkoako Foru Aldundiak gure herrian eta herri inguruan etorkizunerako dituen planen gainean akordioa hartu zuten, erakunde horri igorri eta oraindik erantzun ofizialik jaso ez duena”.

Gutunak jarraitzen duenez, “jaso dugun dei bakarra abuztuaren 20an Foru Aldunditik egindakoa

izan da, hurrengo egunean, egunkarietan, Matsariako eraikina Aldundiak erosi egin zuela zioen albiste edo berria kaleratuko zela esateko”.

Horrez gain, eta Aixolako zentroa jasotzeko beharrek aurrera dirautela ikusita, Udalak bere ardura eta kezka berretsi nahi dizkio sailburuari eta honako eskatu diote idatzian: “Debako zentroko gazteek eragindakoen inguruan sortutako alarma sozialak dirauen bitartean, eta gizartean piztu den alarma hori ezabatu ahal izateko neurri zehatzak martxan jarri arte (hezkuntza eta prestakuntza programak eta gazteen kontrol handiagoa), gure herrian eta gure herri inguruan ez dezala martxan jarri gazteendako inolako zentrorik”. Horrekin batera, Udalari gaiaren inguruan sortutako informazioaren berri ematea eskatu diote.



## Ayra Cardanek ez ditu 54 langile kaleratuko



Hainbat mobilizazio egin zituzten langileek. / LEIRE ITURBE

**AYRA CARDAN-EK ATZERA BOTA DU 54 LANGILE KALERATZEA AURREIKUSTEN ZUEN ERE-A.** Automoziorako osagaiak egiten dituen Itziarreko enpresak dituen 174 langiletik 51 kaleratzea eta beste langileei 70 egunez etetzea aurrekiusten zen ERE-an.

ELA, UGT eta CCOO sindikatuek adierazi dutenez, sindikatuen lan gogorraren ondorioa da Ayra Cardanek ERE-a atzera botatzeko erabakia. Hilabeteetako negoziazioen eta protesta ekintzen ostean, sindikatuek adierazten dute langileek ez zeukatela inolako errurik kontu honetan, beraz, pozik agertzen dira enpresaren erabakiaren aurrean.

## Ipuruako mojek komentua lagako dute

**asteko**  
**25 eta 60**  
**datua**

metro karratu arteko apartamentuak eraikiko ditu Eusko Jaurlaritzak. Ezaugarri horietako 50 bizitoki Egazelain egin litezkeela aurreratu dute; beste etxe bat lortu bitartean, alokairuan bizi nahi duten gazteentzat pentsatutako etxeak dira eta gehien jota 5 urte eman dezakete bertan.

**KONTZEPZIOKO MOJEK EGUN BATZUREN BURUAN EIBAR LAGAKO DUTE, 500 URTEZ HERRIAN BIZITZEN EGON ETA GERO.** Ipuruako komentua foball zelaiko anexoaren eta Ipurua kiroldegia artean dago, lehengo San Pio X.a elizarekin bat eginda, baina urteek aurrera egin ahala gero eta moja gutxiago geratzen joan da eta, gainera, nagusitzen joan dira. Hori dela eta, herriko beste moja batzuek egindakoa-ri jarraituz, kontzepzionistak ere beste egoitza batera joango dira, komunitate bereko beste moja batzuekin batera bizi izatera, Donostiara.

### Markeskuatik Ipuruara

Eibarren izan diren moja guztien artean kontzepzionistak izan ziren lehenak etortzen eta, euren betebeharrak nagusia behartsuei laguntza eskaintzea izan arren, beti gure herriaren



Torrekoa ingurua, Armeria Eskola eta Isasiko konbentua (Asuntzionistak). 1920 ingurua. / CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA. EIBARKO UDAL ARTXIBOA.

mesedetan jardun zutela azpimarratu izan da. Kiroldegia zein anexoa egin ahal izateko 70eko hamarkadan 5.000 metro karratu saldu zizkioten Udalari, kirolerako instalazio berriak egin zitzaizkion.

Lehenengo moja kontzepzionistak Isasiko jauregiko (Markeskuako) Martin López de Isasi eta haren emazte Domenja de Orbearen babespean egon ziren. Hasieran Markeskuako

jauregiari lotuta egon ziren, 1953an Ipuruan komentua egin arte. Sasoi batean beste komentu bat oso gertu izan zuten: Asuntzioko mojak 50eko hamarkadara arte Isasi gainean egon ziren, Eibarko Udal Artxiboko irudi honek erakusten duen moduan. Beste komunitateak desagertzen joan ziren arren, kontzepzionistek gaur egunera arte aurrera egitea lortu dute.

*Oin dala hamar urte*

1999-X-15 / 289. ZKIA.



- Etxebiden, babes ofizialeko etxiak eskatu nahi ebenendako Eusko Jaurlaritzak ipiñitako zerbitzu berezitan, 35.000 eskaera jasota eken ordurako Euskal Autonomi Erkideguan, euretatik 800 Eibartik egindakua.
- Alfak orduan betetzen eban espazixua zelan bete eztabaidatzen hasi zan, Gasteizen bildutako arkitekto batzuek egoera onian baeguan zergaitik bota bihar zan esan ebenian. Ez jakuen larregi jarraitu.
- Patxi Usobiaga eskalatzaillia 3. postuan sailkatu zan gazte maillako Munduko Txapelketian bigarren aldiz. Seigarren urtia zan mundu horretan hasi zala eta ordurako hainbat garaipen eta postu onak lortuak zittuan.
- Arratsaldez bakarrik egin zan orduko Sagardo Egunian, hamar sagardotegiko 1.100 litro sagardo banatu ziran eta sagardo eta pintxo banaketian 40 bat lagun izan ziran biharrian. Justu aurtengo kopuruaren erdixa.

*Oin dala 365 egun*

2008-X-17 / 652. ZKIA.

- Erisonoko biharrak geratzeko eskaeria egiñ eban herriko ezker abertzaliak, Astindu Hirigintza taldiaren izenian; hainbat arau-uraketa salatziak egiñ, alternatibak Matsaria eta Azitaiñen be baeguazela esan eben.
- Urko Aristi telebisiñoako aurkezlia gidari zala, Basetxean jardundako hainbat lagunek, tartian Ziortza Ulazia eibartarra, euren esperientzia kontau eben Illunabarrian barruan antolautako ekitaldixan.
- San Andres pasealekuko autobus geltokixa tokiz aldau eben eta San Juanera pasau, Vivaldi tabernaren onduan, Eusko Trenek Ardantzan egin biharreko tren geltoki barrixarendako biharrak hasi ziralako.
- Iñaki Malumbres Arrateko atezaiña selekziñoara deittu eben, eskubaloiko Asobal Ligan geldiketa gehixen egiñ ebana modu horretan sarrituaz. Urtiak ziran Eibarko taldeetik iñor deitzen ez ebela.





## Uretako sorospenaren inguruko ikastaroa

**URETAKO SOROSPEN IKASTAROA EMANGO DU EIBAR-ERMUA GURUTZE GORRIAK.** Urriaren 24an hasi eta azaroaren 22ra arte emango dituzte klaseak, Ipurua kiroldegian, zapatu eta domeketan, 09.00etatik 12.30etara eta 13.00etatik 16.00etara. 60 ordutako iraupena izango du ikastaroak eta parte hartu ahal izateko alde zurretik proba bi

gainditu beharko dituzte interesatuek: 1.000 metroko luzeeran igeri egin eta 20 metroko luzeeran urpean jarduteko gauza direla erakutsi beharko dute. Informazio gehiagorako 943176248 telefono zenbakira deitu daiteke edo, nahiago izanez gero, Gurutze Gorriaren egoitzara zuzenean jo (autopistaren ordainlekuaren aldamenean, Ermuan).

## Onddo eta perretxikoak sasoi betean

**GUREAN BETIDANIK EGON DA PERRETNIKOTARA JOATEKO OHITURA,** baina badirudi azkenaldi honetan, urtetik urtera zaleztasunak gora egiten diharduela. Perretxikoak ez ezik, onddoak batzera joaten da jende asko, inguruko basoetara zein inguruko probintzietakoetara. Hori bai, kasu gehienetan perretxikoak edo onddoak non batu dituzten kontu handiz gordetzen dute batzera joandakoek, *"besteek tokia lapurtu ez diezaieten"* aitzakiarekin. Ez da hori erretratuan ikusten dituzuen onddoak batu dutenen kasua: Villarreal inguruan argazkiko onddoak eta gehiago jaso dituzte azken egunotan eta euren altxor txikia gurekin eta gure irakurleekin konpartitu nahi izan dute, bulegora hor ikusten dituzuenak ekarri eta oparituta.



Villarreal inguruan hartutako onddoak ekarri zizkiguten ...eta kitteda. / EKHI BELAR

# anzorik anzo



## Tren geltokiaren mendeurrena gogoan


Eibarko tren geltokia zaharberritu zutela ehun urte betetzen direla gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatzen dihardue Estaziño kaleko bizilagunetako batzuk. Asmoa azaroaren 15ean batu eta eguna jai giroan ematea da eta, besteak beste, honako jarduerak aurreikusi dituzte: 11.30etan San Agustin elizan ospatutako mezarekin ekingo zaio egitarauari eta, ordubete geroago, Coliseoan pasodoble kontzertua eskainiko da. Ondoren, Arrate hotelean bazkaria egiteko asmoa dute eta bazkalostean bikote zaharrenari eta gazteenari omenaldia egingo diete. Jarraian, Juan Luis Agirrerren musikak girotutako dantzaldia hasiko da. Ospakizunetan parte hartu nahi dutenek Estaziño kaleko Soleira estankoa eman dezakete izena, 45 euro ordainduta. Izena emateko azken eguna azaroaren 10a izango da. Eibarko tren geltokia hartu zuen lehenengo eraikina 1887an jaso zuten, Bilbo-Durango arteko trenaren ibilbidea Gipuzkoaruntz zabaltzeko proiektuak aurrera egitearekin batera. Gaur egun ezagutzen dugun eraikina, berriz, 1909. urtekoa da, aurreko eraikina handitzeko egin ziren beharren emaitza.

## eibar kalea

### Argatxa Jardinak

Ipurua kiroldegia parean, Santaines kalearekin bat egiten duten lorategi inguruari eman zioten izen hori. Aldamenean etxe ugari badaude ere, Argatxak pegora bi baino ez dauzka, osasun zentrua eta eskola, horregatik ez dago inor bertan errolatuta. Aurretik Justo Oria, 1941-1949 bitartean Eibarko alkate izandakoaren izena izan zuen kaleak.

**Pegora kopurua: 2. Errolatutakoak: 0.**



## FRAN LASUEN, musikaria:



**- 25 urteren ostean 'Bilbao, Bilbao' musikala berriro ere igo da eszenatokira. Zer sentitu duzu horren aurrean?**

Oso esperientzia polita izan da. Orain dela 25 urte egindakoa urgentziazko lana izan zen, premiazkoa ikusi genuen horrelako zerbait egitea eta horrela egin genuen. Sasoaren aurretik zihoan zerbait zen ordukoa. Karraka konpainiarekin lanean nabilen zenbait kontutan eta musikaz arduratzea eskatu zidaten, eta ni oso gustura. Orain, 25 urte gehiago ditugu, baina 25 urte gehiago ofizio honetan lan egiten, beraz, esperientzia eta urte horietan jasotako jakituriarekin. Baita ere, 25 urteren ostean errekurtsio hobekak ditugu gauzak egiteko. Zentzu batean, omenaldi moduan hartu dugu itzulera hau. Aurreneko aldikoa orduko Euskal Herriko errealtateari begiratzeko modu bat zen eta, gaurkoa, historia hurbilaren irakasgaia bezalakoa da, gizartea aldatu egin delako. Horren ispilu da. Duela 25 urte hainbat zauritan atzamarra sartzen genuen barrea sortzeko, baina horietariko zauri askok oraindik ere berdin jarraitzen dute.

**- Nola hartu du jendeak 'Bilbao, Bilbao' berri hau?**

Emoziozko harrera izan du musikalak. Estreinaldia borobila izan zen eta beteta egon da Arriaga antzokia egunero. Bertan duela 25 urte antzezlanak ikusi zutenak, euren seme-alabak, lehen ikusi ez eta orain

'Bilbao, Bilbao' ikuskizuna bueltatu da, eta duela 25 urte bezala, Fran Lasuen izan da musikaren arduraduna. Arriaga antzokiak 1984ko kalimotxo hatsa hartu du berriro. Hala ere, hau ez da musikari eibartarraren oraingo proiektu bakarra, ETB 1 estreinatu berri den 'Bi Gira' saioan epaile bezala arituko baita.

## "Omenaldi moduan egin da 'Bilbao, Bilbao'-ren itzulera"

animatu direnak... bildu dira, eta esan dezaket denek egin dutela berdin barre. Horrek erakusten du orduko eta egungo kontu asko berdinak direla, egiten diren txistekak berdinak direla. Lehen esan bezala, zauriak berdinak direla.

**- Zer pentsatu zenuen berriz 'Bilbao, Bilbao' lanaren musikaz arduratzeko deitu zizutenean?**

Asko poztu nintzen, eta emaitza ikusita biziki pozik nago. Ekainean hasi nintzen lanean eta behar handia egin behar izan dut. Partiturak berrikusi behar izan ditut, garbitu, eguneratu... Oraingo saioak konponketa eguneratuak ditu, hori bai, oinarrizko ezaugarriak galdu barik, baina gaur eguneko soinuarekin. Bestetik, zera galdetzen nion buruari: zer nolako banda behar dut horrelako kabareta egiteko? Luxuzko banda bat zalantza barik, izan ere, gaur egun zuzeneko musika egitea luxua da. Uste dut goi-mailako produktua lortu dugula, Euskal Herrian egiten den horrelako lehena. Horrek jendearen inplikazio handia eskatzen du, eta aktore, zuzendari, argiztaztaile... guztiek, neurri handiko inplikazioa izan dute lanean. Bestetik, kontuan izan behar da Arriaga antzokiak eskaintzen dituen baliabideekin egin dugula lan, beraz, ez ge-

nuen aitzakiarik gauzak gaizki irtetzen baziren. Erantzunkizun handia genuen.

**- Eta zergatik itzulera hau?**

2008. urtean Arriagakoek, nolabait esteko, abisua eman zuten 'Bilbao, Bilbao'-ren itzulera prestatu nahi zutela, tanteo moduan, eta guk baiezkota eman genuen. Horrela, aitzakia bezala, lehen estreinaldiaren 25. urteurrena iritsierarekin Ramon Bareak musikala berriz prestatzeari ekin zion joan den apirilean, eta bere asmoa lehen parte-hartu genuenok orain ere parte-hartzea zen. Horietatik bik egin dute huts soilik: Peter Brookekin Parisen lanean diharduen Cesar Sarachuk eta telesail bat grabatzen diharduen Alex Angulok. Besteak berdinak gara, baina 25 urte gehiagorekin.

**- Eta 25 urteren ostean lan-talde berdinarekin topatzea nolakoa izan da?**

Oso polita. Ikuskizunen mundu honetan gabiltzanak askotan ikusten dugu elkar, baina badaude batzuk ofizioa utzi dutenak, beraz, zoragarria izan da hauek berriz ikustea. Ezusteko polita izan da guztia, eta oso giro ona arnasten da gure artean. Hobe horrela, bestela jai izango genuke-eta. Lan egiterako orduan igarri egiten da giro ona eta publikoak ere igarri egiten du.




'Bilbao, Bilbao' ikuskizuna orain dela 25 urteko indar berberekin eszeneratu dute.



Aste bi daroia 'Alakrana' arrantza-untzixak pirata somalien esku eta horrela jarraituko dau negoziaziñuak amaitzen ez diran bittartian. Erreskaterako piratek 4 millioi dólar eskatzen dabela aipatu da, nahiz eta eurek hori ez konfirmatu. Bittartian, arrantzalien famelixak itxoitia besterik ez dake.

## Erreskatia ordaindu bihar jake piratek bahittutako barkueri?



**CRISTINA LETURIA**  
29 urte  
dinamizatzaillia

Argi dakat gauza garrantzitsuen pertsonen bizitza dala, holan, kasu honetan arrantzalien bizitza babestu bihar da, euren bizitza salbatu. Ezin jake hor botata laga, pertsonak dira eta hori da garrantzitsuen.



**JUAN CARLOS CARRASCO**  
45 urte  
tornerua

Nik erreskatia ordainduko neuke, garrantzitsuen bahittuta daguzen arrantzaliak askatzia dalako. Euren seguridadia dago jokuan momentu hauetan eta edozein prezio ordaindu biharko zan erak aske lagatzeko.

**JON ORMAETXEA**  
51 urte  
bihargiña

Nik erreskatia ordainduko neban, izan be, baxotxan bizitza beste edozer gauzaren gaiñetik dago. Gaiñera, arrantzalien barkuetan seguridade gehixago ipiñiko neuke, militarrek edo halakuak. Bestela, arrantzaliak berak metralletekin edo juan biharko lirake.



**ANA PATRICIA CARBALLO**  
28 urte  
etxeoandria

Erreskatia ordaintzia baiño, ni beste modu batian arrantzaliak askatzen saiatzen ahaleginduko nintzateke. Ez dakitt zelan, piratak indarrez hartu ala zer, baiña erreskatia ordaindu baiño lehena-go beste bide batzuk hartzia egokixago ikusten dot.



**OPONKA**  
OPONKA AUDIFONOS

**Ondo entzun habete birtzenko**

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-zaterketa doan
- Probatu audifonok doan 30 egunez
- %20ko deskontua edozein audifono erostenakoa
- Gainera, erabiltzaileranda, zure audifonoren zaterketa doan egin eta pila pakete bat oparitutako dirugu

OPONKA BEITU - JULIAN ETXERERRIA, 13  
20060 EBILAR - 943 70 02 30  
(Bistak guzuz telefonoa Nizarteko diru)

**EGOITZA NAGUSIA**  
*Bidebarrieta 20 - behea, eskuma*

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

**Mugica Ehorzketa**  
Funeuskadi taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**

Gaur hasi eta hillaren 25era arte, Euskadiko Liburu Azoken Batzordearen eskutik eta Udalak lagunduta Liburu eta Disko azokia egongo da martxan Untzaga plazan, udaletxiaren aldiari. Azokak dirauen bittartian, goizez 11.00etatik 14.00etara zabalduko dabe eta arratsaldean 17.00etatik 21.00etara egunero, baiña asteburuan ordu erdi geruago itxiko dittue postuak. Urteroko moduan, parte hartzen daben saltzailliak liburutegia eta musika munduko azken berriak eskuratu ahal izango dituzte, %10eko deskontuarekin, gainera. Beraz, horrelako eskintzari uko egiteko aitzakiarik ez dago.

**G**aur goizian, prentsari azokaren inguruko gora-beherak azaldu eta gero, jarraixan inauguratu dabe aurtengo azokia Maria Jose Telleria Kultura zinegotzixak eta ferixako antolatzailliak. Datoren hamar egunotan liburu zein diskorik barrixenak izango dira Untzagako protagonista nagusienak, bertara gerturatutako jende guztiarekin batera.

Euskadiko Liburu Azoken Batzordeko Asier Muniategik azaldu deskunez, *“urtetik urtera parte hartzen dabenen zerrendan aldaketa gitxi egoten da, azken aldian argitaletxe, banatzaillia eta liburutegia berberak topau geinkez Eibarko azokan. Hiriburuetan egiten ditugun azokak albo batera lagata, Eibar plazarik onenetakua da. Beste herri batzuetan ez bezala, Eibarren jendiek emoten daben erantzuz*



*na oso ona izaten da beti. Horregaitik, Untzagan postu gehixago ipintzeko tokixa egon ezker, seguruenik saltzaillia gehixago animauko litzake parte hartzera, baiña plazak ez dau gehixagorako aukerarik emoten eta, horregaitik, parte-hartzaillien zerrendari eutsi egitten detsagu”.*

(banatzaillia, Gipuzkoa), Txalaparta (argitaletxia, Nafarroa), Ttartalo (argitaletxia, Gipuzkoa), Eibarko Udala, Xalbador (argitaletxia, Nafarroa), Gautegi (liburutegia, Bizkaia), Elkar (argitaletxia, Gipuzkoa), Elkar diskuak (argitaletxia, Gipuzkoa) eta Munduko Libururik Txikiak (argitaletxia, Peru).

ederra' eta Fermin Etxegoienek 'Autokarabana' eta gaztelaraz, barriz, Stieg Larssonen 'La reina en el palacio...', Isabel Allenderen 'La isla bajo el mar', Toti Martínez de Lezearen 'Perlas para un collar', Dan Brownen 'El símbolo perdido', Paolo Giordanoen 'La soledad de los números primos', Herta Müllerren 'El hombre es un gran faisán en el mundo', Henning Mankellen 'El hombre inquieto' eta Fermín Goñiren 'Los sueños de un libertador'.

Horrez gain, haur eta gazte literaturak, sukaldaritzak, historixiak, arteak... euren tartia izango dabe, aukerako liburuekin batera.

Euskal diskagintzan, barriz, Mikel Urdangarinen 'Zubia', Jexuxmai Lopetegiren 'Izar uxu', 'Gu Gira' bildumia, J. M. Bede-xagarren 'Añamendi', Alos Quarteten 'Ttakun', Ken 7, The Uskis, Gatibu, Berri Txarrak, Su Ta Gar eta beste hainbat erosteko aukeria izango da.

#### **Eibarko Udalaren argitalpenak**

Azokan urtero parte hartzen dabenetako bat Eibarko Udala bera da. Azokari laguntasuna eskintziaz gain, Udalaren argitalpenak, Ego Ibarra batzordia-



#### **Eibarko zein kanpoko parte-hartzailliak**

Untzagako postuetatik buelta bat emon ezker, honetxek topauko ditugu aurtengo azokan: Aierbe (liburutegia, Eibar), Arriaga (liburutegia, Araba), Elkar (argitaletxia, Gipuzkoa), Gure Liburuak (argitaletxia, Nafarroa), Urretxindorra (liburutegia, Bizkaia), Herriak (banatzaillia, Bizkaia), Ibaizabal (argitaletxia, Bizkaia), Zabaltzen

Azokan topauko ditugun liburuak, barriz, momentuan gehixen saltzen diharduenak dira: euskerazkuen artian Kirmen Uriberen 'Bilbao N. York-Bilbao', Toti Martínez de Lezearen 'Nur', Unai Elorriagaren 'Londres kartoizkoa da', Joan Mari Irigoienek 'Haragiaren gauak eta egunak', Karmele Jaioren 'Musika airean', Juan Ramon Makusoren 'Huntza hezur berri-tan', Hedoi Etxarteren 'Ihes

## IÑAKI ZUBILLAGA, Aierbe liburudendakoa


### “Liburua erosteko ahalegin bat edo bi behar dira”

**- Betidanik hartu izan dozu parte azokan?**

Bai, ohitura modukua da, urtero aprobetxatzen dot azokia liburudendako eskintza kalera etartzeko. Kuriosua izaten da, gaiñera, kalera etartzian beti be jende gehixago zelan gerturaten dan ikustia, dendatik plazara distantzia oso txikixa izanda be.

**- Urtian zihar dendara juaten jatzun jendia-  
ren eta azokara gerturatzan diranen artian  
alde haundixa izaten da?**

Benetako azterketa egin barik be, intuiziñuari jarraituta esan leike azokara doian jendiak modan daguana, irra-telebistan entzuten dittuan izenburuak billatzen dittuala. Batzuetan dendan iñork begiratzen ez daben titulo arraroren bat azokara eruan eta arrakasta izaten dau, gaixa momentuan danon ahotan dabilrelako, adibidez. Edozelan be, liburua erosteko esfortzu bat edo bi bihar dira: dendara etorri eta dirua etartzia, eta azokaren kasuan badirudi esfortzu bakarra eskatzen dala.



**- Modak aittatu dittuzu. Zer dago modan azken aldixan?**

Ba Millenium trilogixia. Jendiak, orokorrian, entretenitzen daben liburuak nahi izaten ditu, harrapatzen zaittuen horretakuak. Ez dittue nahi izaten pentsatzera bultzatzen zaittuen liburuak eta horrek pobretzia eragitten dabela uste dot.

**- Eta zuk, zein liburu gomendatuko zenduke oin momentuan?**

Sam Savageren ‘Firmín’, gaiñera oin poltsikoko ediziñua etara dabe eta oso nobela polita, goxua, gustura irakortzen dan horretakua dala begittantzen jata. Personon ezaugarrixak dittuan arratoi baten istorixua kontatzen dau.


Narbaizaren ‘Muguruza aita-semeak. Medikuntza eta jakin-mina ikur’ izango da.

**Kirmen Uribe hillaren 23an**

Bestalde, azokaren aitzakiarekin beti be idazleren bat etorri jaku herrira urtero, liburuak siñatzera eta irakorle-erosliekin hartuemon zuzenak emoten dittuan aukerak aprobetxatzera. Aurten gure artian izango dogun idazlia, gaiñera, lehendikan be aski ezaguna izatiaz gaiñ azken egunotan danon ahotan dabil: Espaiñiako Narratiba Sarixa eskuratu barri daben Kirmen Uribek datorren barixakuan, 19.00etatik aurrera, ‘Bilbao N. York-Bilbao’ saritutako nobelia siñatuko dau Elkar argitaletxiaren postuan.




renak barne ezagutzera emoteko aprobetxatzen dabe urteroko hitzordua. Bestiak beste Ego Ibarra bilduma osatzen daben liburuak, Euskera saillekuak eta beste hainbat eskinduko dittue Udalaren postuan. Izenburuen artian barrixenetakua Antxon



**La Movida eibarresa**  
Kirola atseginez  
egunero Borja Rodriguezekin,  
arratsaldeko 3etatik 4etara

**90.7 Fm**

TEEN-  
AJEA



**Eibarko Gazte Lokalen 1. Txapelketak** datorren barixakuan, urriak 23 18.30etan, ikusiko du argia. Herriko lokaletako gazteak lehiaketa batean bilduko dira hainbat astetan zehar hainbat jokotan euren abilezia erakusteko eta, amaieran, final handia jokatuko da (jaialdi baten barruan). Lehen jokorako izen ematea eguaztenean amaituko da.

**GORKA BENGOETXEA, JON ALTUNA, RUBEN ALBERDI eta PABLO BADIOLA, antolatzaileak:**

## “Gazteen artean giro ona sortzea da asmoa”

**- Zertan datza Eibarko Gazte Lokalen 1. Txapelketak?**

Bere funtsean lokaletan bazen diren gazteen artean nola-baiteko elkartrukaketa eta harremana lortzea da gure nahia, euren arteko dinamika bat. Horretarako, hainbat astetan zehar jokoak egingo dira lokal ezberdinetan, eta azkenengo egunean finalak jokatuko dira jaialdi batean. Hau da, aurretik, astero-astero jokatutakoa azken egun horretan erabakiko da, baina horrez gain musika, beste jolas batzuk, bazkaria eta ondo pasatzeko aukera egongo da.

**- Zein jokotan arituko dira parte-hartzaileak?**

Normalean lokaletan jokatzen diren jokuetan: futbolina, Play Stationa (Singstar jokoak), musa eta ping pong-a.

**- Zer egin behar da parte hartzeko?**

Herriko hainbat lokaletan izena emateko orriak ipini ditugu. Hala ere, interesa daukanak...eta kitto! Euskara Elkartearen

bulgora joan besterik ez dauka (Urkizu 11, solairuartera) eta han izena eman. Baldintza bakarra 18 urte baino gehiago izatea da. Lehiaketa irekia da eta aste batean baten batek parte hartu ezin badu ere, hurrengo batean parte hartu ahal izango du. Ez zaizkio inori atak itxiko.

**- Jendea animatu da?**

Hainbat lokalek baiezkioa eman digute eta begitantzen zaigu oraindik gehiagok emango dutela izena. Gero, lokal bakoitzetik jokoetara joango direnen kopurua jakiteke dago, baina gero eta jende gehiago joan, lokal horrek gero eta puntu gehiago lortuko ditu sariak jasotzeko.

**- Eta sariei dagikionez, zer?**

Joko bakoitzeko irabazleek txapelak jasoko dituzte, baina lokalek ere berea hartuko dute, eta horretarako ahalik eta puntu gehien lotu beharko da. Hala ere, asmoa ondo pasatzea da, gazteen artean giro ona sortzea.

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**K21**

**San Juan, 15**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

# INTERNETetik BERBETAN

Pertsonen arteko komunikazioan etengabe ematen dira aurrerapausoak (modu egokian erabiltzen badira, behintzat). Anitzak dira pertsonak komunikatzeko erabiltzen dituzten modu eta aukerak. Horiatariko bat internet sarea da, eta Skype eta Msn Messenger dira, besteak beste, horren adibide.

Telefono mugikorrek ordenagailuen funtzioak hartzen ari dira azken sakeleko bertsioetan ikusi daitekeen moduan, baina ez da erlazioaren alde bakarra, ordenagailuek sakeleko telefonoen funtzioak ere bereganatu dituztelako, batez ere telefonoen ezaugarri nagusia: deiak egitea.

Bat-bateko mezularitza izan zen aintzindaria PLATO sistemaren bidez 1970. hamarkadan. Horren atzetik UNIX/LINUX-en Talk etorri zen, eta ICQ-k eraman zuen berehalako mezularitza UNIX/LINUX ez ziren sistema eragileetara. Baina teknologien garapena etengabea da, eta momentu oro gauzak berritzen doaz. Horrela, gaur egun, idatzizko berba bitarteko komunikazioaz gain, ahoko edo bideozkoa ere eskaintzen dute mezularitza zerbitzuek.

Badaude mezularitza zerbitzua eskaintzen dituzten programak, deiak egitea ahalbidetzen dituztenak, bideodeiak egitea eskaintzen dutenak eta zerbitzu guzti horiek batera ekartzen dituztenak. OSCAR (AIM, ICQ), XMPP (Jabber), IRC, MSNP (Windows Live Messenger) eta Skype dira, beste askoren artean, bat-bateko mezularitza zerbitzua eskaintzen dituzten protokoloak. Horiez guztiez gain, edo hobeto esanda, horiek guztiak batuz, badaude protokolo ezberdinak jasaten dituzten programak, Pidgin edo Trillian kasu.



## Telefonoetara deiak

Mezularitza zerbitzu erabilienak hauek dira: AOL Instant Messenger, ICQ, MSN Messenger, Yahoo! Messenger, Windows Messenger, Google Talk eta Skype. Pertsona bakoitza bere kontaktuekin idatziz, ahots bitartez edo bideo bitartez komunikatu daiteke programa hauen bitartez, baina Skypek, adibidez, beste zerbitzu bat gehiago eskaintzen du: telefonoetara dei egi-



Badaude mezularitza zerbitzua eskaintzen dituzten programak, deiak egitea ahalbidetzen dituztenak, bideodeiak egitea eskaintzen dutenak eta zerbitzu guzti horiek batera ekartzen dituztenak.



Gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu internetek eskaintzen dituen zerbitzu hauek; izan ere, dirua aurretzen da internet bidez berba eginez telefonotik baino. Mezularitza zerbitzuak erabiltzeko ez da inolako kuotarik ordaindu behar, zerbitzu berezietarako soilik; beraz, ordenagailutik ordenagailura deitu daiteke soilik, kontaktu batetik beste kontaktura (ezin da onartu ez zaituen kontaktuari dei egin).



Aukerak, lehen aipatu bezala, anitzak dira, eta programek antzerako zerbitzuak eskaintzen badituzte ere, bakoitzak bere berezitasunak ditu (protokolo ezberdinak, sistema eragile ezberdinentzat prestatuak badira...). Horrela, pertsonen artean komunikatzeko internetez baliatu nahi duenak badauki, egin klik eta aukeratu!

**AKONDIA**

**Albaitari Zentroa**

Julen Arano / M<sup>a</sup> Jesus Blanco

**Bittor Sarasketa, 12**

☎ 943 12 74 15

*Izadi*

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1      Tel. 943 20 33 29

**KATU**

**KALE**

**TABERNA**

**BIDEBARRIETA, 1**

## Dentistak

odontologia  
biologikoa eta orokorra  
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B  
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57



**AMAÑA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasunerako  
profesional talata  
zure zerbitzura



Hortz, konplexua eta  
komplikatu barietatekin  
Hundelako kontrola...


PREBENTIBOAK - Tel. 943 20 18 51

eibartarren irribarrea pizten



**Bista Eder**  
DENTISTAK

Bista Eder, 19 - behea  
Tel. 943 70 00 82  
943 20 84 75



- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



**IRAZABAL**  
clinica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

# OSASUN

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

EGUNERO



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia  
ume eta  
helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.marladoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO** RPS 336/05  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**

ERREHABILITAZIOA



- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato  
Eibarrés

Errehabilitazioa  
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxa - 943 12 03 58

## Estetika klinika

**abontza**  
clinica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 8. behean - Telf.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapia



**ANE MENDIA**

970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20

FISIOTERAPIA  
ZENTRUA  
Tlf. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com



FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI  
901 kolegiatu zbkia.


San Agustin, 2-4 - M lokala  
Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14  
Telefonos: 943 12 70 78



# GGDA

## Kirol medikuntza

**KIROL MEDIKUNTZA**  
  
**Indartu**  
 ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIETAKO MUTUA ETA ASBAGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
 124 kolegiatu zenbakia



**943 12 14 93**  
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

## Psikologoak

**AROR**  
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
 (Ume eta helduendako)

--- Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta ---

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. esk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
 Artakalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

## Okulistak

  
 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

**OKULISTAK**  
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea  
 Tfnoa: 943 20 19 82

  
 BIDEBARRIETA, 48  
 EIBAR  
 943 203050

ERDIKO KALE 54  
 ARRASATE  
 943, 799746

**PODOLOGOA**  
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO  
 PSIKOLOGIA  
 KABINETEA

  
 Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
 TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66  
 a\_garitaonandia@terra.es

  
 Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2º  
 Tfnoa: 943 201 844  
 www.clinicarecalde.com

**PODOLOGOA**

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta  
 Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
 Telf. 943 206823 eta 686 859023

  
**PODOLOGO**  
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Hemen zure tokia izan nahi baduzu  
 deitu 943-206776 telefonora

## OSTEOPOROSIA

**L**ehenik eta behin, jakin dezagun hezurak bizirik dauden ehunak direla; berritze prozesu iraunkorrean dihardute, ehun hori eratzten eta apurtzen diharduten zelulaz osatuak.

Horretarako, hainbat substantzia behar dituzte; batez ere, elikagaiekin lotuta dauden kaltzioa eta bitamina D (kaltzioa xurgatzea edo absortzioa eta erabilera hobetzen duen bitamina da).

Hezur berritze prozesu horretan desoreka gertatzen denean, bai hezurra ez delako behar den bezala osatzen edo hezurra behar den baino gehiago apurtzen delako (edo biak batera), osteoporosia agertzen da;

hau da, hezuraren egitura ez da behar den bezain sendoa eta horrek haustura arriskua dakar; hezur ahulezi horrek minik ematen ez duenez, normalean osteoporosiaren lehenengo sintoma hezur apurtzea izaten da.

Hezur masa haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan handitzen joaten da; 30-40. hamarkadan pikua heltzen da eta, hortik aurrera, urteak joan ahala, pixkanaka jaisten doa. Emakumeetan, menopausia prozesuarekin batera, estrogeno tasa murrizten denez, hezur masa jaitsiera hori azkarragoa da.

Urteak ezinbestean aurrera doazenez, osasuntsu bizi izateko gure esku dauden neurriak hartu beharko genituzke prebentzio gisa: elikadura egokia eta orekatua (egunean 1000 g. kaltzio, gutxienez), ohiko ariketa fisikoa eta alkohola eta tabakoa alde batera lagatzea. Osteoporosiari aurre egiteko metodo onena prebentzioa da.



*Silvia Zuluaga*

### HELDUEN GAIXOTASUNAK UMEENGAN GORA DOAZ




Helduen gaixotasunek umeengan izan duten hazkuntzak alarmak piztu ditu kontsultetan. Jakitunen aburuz fenomenoak hasi egin berri da eta gertatutakoa icebergaren punta bakarrik da. 9 eta 14 urte bitarteko umeak hipertentsio arterial eta II. motako diabetesakin diagnostikatu dira, heldutasunari lotutako gaixotasunak. Lipidoen aldaketak ere hazten doaz, umeak gaixo kronikoak bihurtuz. Horrekin batera, loditasun kasuak ere gora doaz, XXI. mendeko osasun izurria. Hau ez da gainpisu arazoa soilik, bizi-kalitatea murriztu eta heriotza goiztiarra ekarri ahal dituelako baita ere, batez ere loditasun hori haurtzaroan nabarmentzen bada. Horrela, ume gaixo bat arazo bat bada ere, bere gaitzaren efektuak heldu gazteak direnean azaleratuko dira. Loditasuna ez da elikatze txarraren ondorioa soilik, bizimodu sedentarioak ere bere garrantzia duelako. Garrantzi handia. Badago, gainera, beste arazo bat; izan ere, umeetan agertzen diren helduen gaixotasun hauek ez daukate tratamendu espezifikorik. Espezialistek diotenez, ez dago farmakorik, umeengan inoiz ez direlako frogatu.



### ANTSIETATEA ETA ESTRESA TXANPON BERAREN AURPEGIAK DIRA

Familia eta lanarekin zerikusia duten estres eta antsietatea dira komunitate zientifikoa gehien kezkatzen dutenak. Hauek biek gizarte-kostu eta gaigabezia kontuetan gizarte-karga handia daramate. Izan ere, populazioaren %25-40 ak bere bizitzan zehar antsietate pasarte bat izaten du. Antsietate asaldurak dira populazioaren artean gehien gertatzen diren gaixotasun psikiatrikoak. Txanpon beraren aurpegi biak dira estresa eta antsietatea: antsietatea estresaren alderdi psikologikoa da, eta estresa antsietatearen alderdi biologikoa. Antsietate eta estresak, normalean, bere ingurunearekin interakzionatzen usten diote gaixoari, baina hauek patologiko bihurtzean sufimenduak, egunerokotasuna aurrera eraman ezina, eta bere buruaz beste egitearen arriskuaren

eta adikzioetan erortzearen gorakada ekartzen dute. Zentzu horretan, familia eta lanari lotutako estrés eta antsietateak dira adituei gehien kezkatzen dietenak.



### ZELAN JOKATU BEHAR DA BIHARAMUNEKO PILULAREKIN



Biharamuneko pilula errezeta gabe eskuragai dago farmazietan. Neurri honekin, Gobernuak pilula lortzea errezeta nahi du babes gabeko sexu harremanak egin edo antisorgailuak huts egin duten larrialdi kasuetan. Hori bai, Osasun Ministerioak azpimarratzen du pilula ez dela antisorgailu

metodo ohiko bezala erabili behar. Gainera, pilularen erabilera egokia egiteko material informatiboa banatuko da. Neurri honekin espero ez diren haurdunaldiak ekiditea espero du Osasun Ministerioak. Orain arte familia planifikazio zentroetan eskura zitekeen pilula, baina neurri berriekin emakume guztiei pilula lortzeko aukera



errezten da, harreman sexuala izan eta lehen 72 orduetan hartu behar delako. Egokiena harreman sexuala eduki eta ahalik eta azkarren hartzea da, denbora aurrera joan ahala bere eragina gero eta murriztago delako.





ESKOLARTEKO XXII. MENDI LEHIAKETAREN DIPLOMAK BANATUKO DIRA DOMEKAN

## Gipuzkoako Finalistaren Eguna Arraten



**M**endi-bueltak eta txangoak arduraz handiz prestatzen dituzte gure herriko Klub Deportibokoek; astean zehar mendi batzordekoek zelan egiten duten lan ikustea modukorik ez dago. Baina oraingoa ia urtebete daramatate prestatzen: *“laztikan, azarotik gagoz saltsetan hasita”*, diote antolatzaileek. Beste guztia antolatuta, eguraldiaz daude arduratuta *“gure eskutik kanpo baitago hori”*; hala ere, aurrikuspenak onak dira eta badirudi eguraldia lagun izango dutela domekan.

Aurreko denboraldiaren amaiera eta berriaren hasiera batuko dira Gipuzkoako Mendizale Federazioak, Foru Aldundiak eta Gipuzkoa Kirolak-ek bultzatutako domekako ekitaldian. Iaz egindakoaren fruituak jasoko dituzte 8tik 14 urtera arteko probintzia osoko mendizale gazteek Arraten: *“Azken urtean Euskal Herriko lau mendigain, ibilbide motzeko zidor bi eta ibilaldi neurtu bat egindakoak dira diploma jasoko dutenak”*. Eta hori da ere 2010eko ekainaren 9rako egin beharko dutena datorren urteko saria jasotzeko.

### Mendizale uholdea

Giroa izango da domeka goizean gure inguruko mendietan. Horretarako garbitu baitituzte

mendi bideak (*“pausu bat itxita zegoen eta pinu batzurrekin moztuta beste bat, udal brigadakoek garbitu dituenak”*) eta baita seinaleztatu ere. Arratetik 09.00etan irtengo dute, Kalamuako gainera heltzeko asmoz, eta eguerdi aldera bertara bueltatuko dira, ondoren diplomak banaketari ekiteko. Zortzi kilometro eta erdiko haurren ibilbidea egingo dute, *“hamarretakoa tartean, bi ordu eta erdian, hiru ordu inguruan egitekoa; eguerdian, behintzat, amaitzekoa”*. Deportiboko antolatzaileek ez dute nahi izan ibilbidea Arrate barrutik egitea, *“ezta errepiderik zapaltzerik ere”*. Horregatik, Arratetik eskumara joko dute, Krabelin gainera, barrutik; gero, Akondia azpitik Garagoitxiko Txabolaraino joango dira, hamarretakoa hartu eta, Azketatik, Arratera bueltatzeko. Helduentzako bide al-



Klub deportiboarekin azken urteotan egindako mendi ibilaldietako irudiak.

ternatiboa zeozer luzeagoa izango da: *“San Ildefonso santutxua ezagutzera bidaliko ditugu”*, dioskue Deporrekoe.

Iazko edizioan 980 neska-mutil eta 600 heldu bildu ziren Orion. Eurekin egon ginenean, antolatzaileek (35 bat lagun jardun dute guztia prestatzen) oraindik ez zekiten aurreten zenbat bilduko diren Arraten: *“Hori bai, Eibarko zortzi ikas zentroko jendea izango da eta finalistak, Eibarren bakarrik, 80 dira”*. Eta, eskola talde bakoitzean, hamar umeko arduradun bat jo-

Mendizaleendako egun berezia izango da etziko gure herrian, eskolarteko mendi lehiaketako Finalistaren Eguna egingo baita Arraten. Txandaka, herri batetik bestera aldatzen doan Egunaren antolaketa Eibarko Klub Deportiboari egokitu zaio oraingoa, Eibarren lehenengo aldiz egingo den ekitaldia prestatzea. Mendi ibilaldia eta diplomak banaketa izango dira Gipuzkoa osoko mendizaleak bisitatuko gaituzten egunaren ardatzak.


ango da. Atzorako Klub Deportiboan buletina beteta aurkeztu ez dutenak ezingo dute, sari banaketarekin batera, zozketatuko diren oparirik jaso. Ezta Klub Deportibokoek prestatutako ibilbidetik joan, *“alternatibotik jo beharko baitute”*.

### Autoak Olabera

Goiz osoan ezingo da Arratera autoarekin sartu eta Olabe erabiliko da autoak aparkatzeko.



ko; horregatik, antolatzaileek barkamena eskatu nahi die kaltetuak izan daitezkeenei. Arrateko zelaietan, bestalde, parte-hartzea baieztatuta ahal izango dute aurrez inskripzioa egina dutenek. Mendia ez zikintzeaz ere arduratu dira antolatzaileak eta mendizale bakoitzari *“bere motxila eramatea”* eskatzen zaio.



## Gimnasten lehen garaipenak

### IPURUA GIMNASIA ERRITMIKAKO TALDEAK BIKAIN JARDUN ZUEN ZARAGOZAN

jokatutako taldekako Virgen del Pilar torneoan. Berau irabazteaz gain, 1. mailako onenak izan ziren eibartarrak, 3. postua eskuratu zuten seniorretan eta 5.ak izan ziren infantil mailan. Denboraldiko lehen lehiaketa arrakastasuaren ondoren, Ipuruan jokatu beharreko Gipuzkoako taldekako txapelketa izango dute bigarren erronkatzat.



## Astelena frontoiko denboraldia

**ASTELENA KATEDRALAK ATZERATU EGIN DU DENBORALDI BERRIAREN HASIERA** bezperan Eibar Kantuan edizio berria izango delako. Hasieran hilaren 18rako zegoen iragarrita pelota profesionalerako lehenengo jardunaldia, lau eta erdiko buruz-buruko txapelketako Xala eta Saralegiren arteko partidua tartean zela, baina azkenean Donostiara eraman dute jaialdia (Zarautzeko frontoian bertso txapelketako jaialdia dago).

## Arratek gaur bertan jokatuko du Granollersen

**CUTURA ANAIEN ARTEKO NORGEHIAGOKA IZANGO DA BESTE BEHIN, ORAINGOAN GRANOLLERSEN.** Davor-ek Granollerseko goleatzailer nagusia izaten jarraitzen du Kataluniako taldean, baina Dalibor anai nagusia ez da atzean geratzen eta Arratekoak, joko antolatzaile titularra izateaz gain, Eibarko taldeko goleatzaile nagusietakoa dugu, Törö eta Redeirekin batera. Azken hau etxean geratu da oraingoan, min hartu baitzuen Ciudad Realen aurka Ipuruan jokatutako partiduan. Gaurko lehia 20.45etan hasiko da Palau D'Sporten eta ez da erraza izango inorendako, kataluniarrek behartuago dauden arren puntuak lortzera.

1. Nazional mailako taldeak gol bakarrarengatik galdu zuen Atarrabian Beti Onak-ekin (26-25) eta sailkapeneko erdialdean dago kokatuta; bihar Colindres azken sailkatua jasoko du Ipuruan 19.00etatik aurrera. Gazteagoen mailetara jaitsita, Euskal Ligako jubenilek eta kadeteek akatsik gabeko biderei jarraitzen diote eta garaile izan ziren Erreterian bertako Ereintzaren aurka jokatutako azken jardunaldian: 26-42 jubeniletan eta 20-35 kadeteetan. Asteburu hau garrantzitsua izango da azken sailkapenari begira, talde batek zein besteak denboraldiko norgehiagoka garrantzitsuena izan daitekeenari egin beharko baitiote aurre: Irungo Bidasoa



Redei baja garrantzitsua izango da Granollersen jokatu beharreko partidurako.

izango dute bisitari domeka goizean (kadeteen arteko partidua 10.30etan eta jubenilena 12.00etan).



Baloncesto Eibar taldearekin aurrendenboraldia egin duten jokalariek.

**GURE HERRIKO SASKIBALOI TALDE BIEK IPURUA KIROLDEGIAN** hasiko dute denboraldi berria asteburu honetan: Baloncesto Eibar-ek (babeslerik ez du oraindik) Oñatiko Aloña Mendi

## Saskibaloi taldeen denboraldi estreinaldia bihar Ipuruan

hartuko du bihar arratsaldean, 16.30etan hasita; eta, partidu hori amaituta, 18.00etatik aurrera, Katu Kalek Elgoibarko Gabi Jatetxearen aurka jardungo du kantxa berean. Talde biak Gipuzkoako seniorretako II. multzoan jardungo dute, aurrez aipatutako taldeekin eta Soraluze B eta Mondragon Unibertsitatearekin batera. Territorial maila horretan, dena dela, 30 talde daude, sei taldez osatutako bost multzotan banatuta; multzo bakoitzeko lehenengo biak hurrengo fasean igoerako hiru postuen bila lehiatuko dute.

## Eibar B-ren lehen garaipena

**3. MAILAKO AZKEN POSTUA LAGA DU EIBAR KE-KO BIGARREN TALDEAK** herenegun Unben eskuratutako denboraldiko lehenengo garaipenari esker. Orain arte jokatutakoen partidu onena eskaini zuten Iturberen mutilek eta Amorebieta mailako talde indartsuenaren gaintik pasa ziren. Eibartarren golak Verak eta Abaroak eskuratu zituzten eta, emaitza horrekin, Salvatierra laga dute atzean eibartarrek, Lagun Onak harrapatu, Retuerto puntu bakarrera dute eta Audio, Santurtzi eta Portugalete bira aurkitzen dira.




Iturberen taldea merezitako puntuak jasotzen hasi da.

## Eibar-Lemoa domekan 17.00etan hasita

**EIBAR KE-K JARRAIAN ETXEAN JOKATUTAKO PARTIDUETAKO BERE BOSGARREN GARAI-PENA BILATUKO DU** domekan, modu horretan denboraldi honetako plenoarekin jarraitu ahal izateko. Domekan Izarran lortutako garaipenarekin, aurrerapausu garrantzitsua emango leuke hiru puntu hauek eskuratuz eta, sailkapeneko onekin jarraitzeko aukera paregabeari muzin egin barik, lidergoa ere esku-eskura izan dezake.

Eskozia La Brava peñakoek, eguna aprobeztatuz, txosna zabalduko dute goizeko 11.30etan eta 15.00ak arte, gutxi gorabehera, zabalik izango dute Untzagan. Bertan txorizo pintxoak eta edariak salduko dira eta bertan zezoz erosten duten guztiek 14.30etan egingo den zozketan sartuko dira; zozketa horretan, taldearen entrenamendurako kamiseta eta suda-



Viadero entrenatzaileak eta bere laguntzaileek orain arte hobeto asmatu dute taldearen jokorekin bigarren zatietan.


dera bana, jokalariek sinatutako baloia eta bufanda izango dira eskuragai.

## Jardunaldi berria foball zaletuan


**ZUBIA DELA-ETA, AZKEN ASTEBURUAN PARTIDURIK EGON EZ BADA ERE**, oraingoan berriro helduko dio Ligari gure herriko foball-zaletuen torneoa. Jardunaldi honetako partiduak honakoak izango dira: zapatuan, 09.00etan, Durango-Tankemans eta JoseAutos-Tecnografik (azken hau goiko zelaian); 10.30etan, Sporting-Txoko; eta 12.00etan, Sinesponsor-C.Dental. Domekan, bestalde, beste hiru partiduak jokatuko dira: Esmorga-EzDok, 09.00etan; Caserío-Alkideba, 10.30etan; eta KOX-Areto, 12.00etan.

## Euskadiko hiru-txirlo txapelketa, bihar hasita

**HIRU-TXIRLO BOLA TXAPELKETA-REN XX. EDIZIOA ABIATUKO DA BIHAR**, arratsaldeko 17.00etan hasita, Elgoibarko San Miguel bolatokian. Hurrengo hiru zapatuetan jarraipena izango duen Euskadiko txapelketa hau guztira lau jardunalditan jokatuko da: Etxebarriako Barinagan jokatuko dute hilaren 24an, hilaren azken egunean Sorluzeko San Andresen eta azaroaren 7an Mallabiako Goittan. Edozer gertatuta ere, gure herriko Asola-Berri bolatokia izango da ordezkaria edozein kasutan. Jardunaldi bakoitzaren irabazleak 65 euro jasoko ditu eta sailkapeneko lehenengo seiak izango dute saria.



Asola-Berrikoa izango da ordezkari bolatokia Euskadiko txapelketa honetan. / LEIRE ITURBE




## Autobusa Behobia-Donostia lasterketarako

**ATE JOKA DUGU AZAROAREN 8-AN JOKATUKO DEN** proba entzutetsu hori eta, urtero lez, autobusa antolatuko dute Eibartik haraino joateko maratoni erdian parte hartuz. Autobusak goizeko 08.15etan irtengo du Ego-Gaineko autobus geltokitik. Txartelak Askasibar Intersport kirol-dendan hartu daitezke, 10 eurotan, eta 55 plaza-rako tokia egongo da.

## Arana xakelaria hirugarrena Ermuan

**ERMUTARRAK XAKE TALDEAREN 25. URTEURRENEAN** izan dira Klub Deportiboko bederatzi ordezkari (Jon Arana, Julen Egurrola, Emilio Freire, Haritz Garro, Julen Garro, Mikel Larreategi, Manuel López, Edu Olabe eta Diego Olmo) eta, xake torneo bere horretan, Arana 3. postuan geratu zen azkenean, Ivan Muñoz eta Luis Olaizolaren atzetik



**GERMAN GONZALEZEK ETA CARLOS PADILLAK BERTAN BEHERA LAGA BEHAR IZAN ZUTEN** Portugalgo auto historikoen rallya, izen handiko proba horretako bigarren etapan sutea piztekotan izan baitzen euren Lancia Beta Montecarlon. Hasiera nahiko ona izan zuten eibartarrak eta kanariarrak, lehenengo jardunaldiaren amaieran sailkapeneko 8. postuan baitzeuden. Proba laga behar izan arte, baldintza gogorretan jokatu zen lasterketa, bai meteorologiari dagokionez, baita ere tramoak oso azkarrak eta apurtzeko arriskuarekin jokatu zirelako.

## Portugalgo rallyan ezin

**XVII. Musikaldia mundu osoko koruak jasoko ditu aurtengo edizioan ere, baina hauek eszenatokira igo aurretik Miguel Salvador Projecten jazzak izango du protagonismoa. Errabal Jazzen barruan talde arrakastatsu honek kontzertua eskainiko du urriaren 23an Coliseoan, 20.30etan (5 euro).**



**MIGUEL SALVADOR, musikaria:**

## **"Ikasitakoari fidela izaten saiatu naiz"**

**- Nolako ikuskizuna izango da kontzertua?**

Urtarrilean grabatutako diskoari errepassoa emango diogu, abesti berri batekin; izan ere, bigarren diskoa izan daitekeenerako abesti berriak eskaintzen ditugu azken aldian. Zuzeneko abestiek kutsu ezberdina dute diskoarekin alderatuz. Abesti irekiak dira, beraz, berritasunak dituzte zuzenean interpretatzerakoan.

**- Miguel Salvador Project izena darama taldeak. Bertan Euskal Herriko jazz musikaren erreferente nagusietariko batzuk batzen zarete. Nola sortu zen taldea?**

Hurbileko jendearekin sortu nuen taldea. Musikari bakoitzarekin istorio bat izan dut eta den-denekin oso erlazio ona daukat. Gonzalo Tejada eta Iñaki Salvadorrekin, adibidez, eman nituen lehen pausoak jazz munduan eta proiektua azaltzean pozik parte hartuko zutela esan zidaten. Elkarrekin ibilitakoak gara denak eta proiektu honetan elkartu gara. Familia txiki baten modukoa da gurea. 2008ko udan, abestiak amaitu bezain laster, eurekin kontaktuan jarri eta kontzertuak eskaintzen hasi ginen.

**- Nor da Miguel Salvador?**

Gauza asko eta gutxi, aldi berean. Denetarik egin dut musika munduan: funka, dantzarako musika, jazz purua... Ez da lehen aldia horrelako jauzi bat egiten dudana. Nahiz eta armonia edo akorde ezberdinetako abestiak landu, euren artean zentzua bilatzen ahalegindu naiz. Diskoa ez da 'ni' %100ean, baina badauka ni naizenaren zati handi bat. Urtetan ikasitakoari fidela izaten saiatu naiz, baina beti geratzen dira hainbat gauza kanpoan.

**- Udan zehar hainbat kontzertu eskaini dituzue, eta zuen abestiek mugak gainditu eta Eskoziako irrati-emisoretara iritsi dira.**

Harrituta geratu nintzen esan zidatenean. Badirudi gure kontzerturen batean norbaitek grabatu egin gintuela eta grabatutakoa Eskoziako irrati-emisora batean ipini zutela. Interneten begiratu behar izan nuen egia zela sinesteko. Egia esan, ez nuen grabatu gintuena ezagutu, eta gustatuko litzaidake berarekin berba egin eta eskerrak ematea. Gauzak egitetik hauek gustatzerara aldea dago, beraz, pozgarria da egindakoa jendeari gustatu zaiola jakitea.




## **Lau abesbatza XVII. Musikaldian**

**DATORREN ASTEKO BARI-XAKUAN, HILAREN 23-AN ABIATUKO DA XVII. MUSIKALDIA, EIBARKO UDALAK ETA ERRABAL JAZZEK ANTOLATUTAKO EMANALDIA-REKIN:** Miguel Salvador Project izenburuko kontzertua Coliseoan izango da, 20.30etan eta sarrerak 5 euro balio du. Musikaldian ez ezik, Errabal Jazz programaren barruan dago Salvador gitarrajolearen emanaldia.

Jazz estilotik aldentuta, beste lau emanaldik osatuko dute aurtengo Musikaldiaren programazioa. Eibarko Udalak, Hezkuntza Esparruak eta Tolosako Ekinbide Etxeak lau abesbatzaren kontzertuak ekarriko dizkigute Coliseoraino. Hilaren 26an Txekiar Errepublikatik etorritako Ondrásek Czek Childrens Choir umeen abesbatzak

eskainiko du kontzertua. Azken 40 urteotan abesbatza honek lotura oso estua izan du Novy Jicin herrialdeko bizitza kultural eta musikarekin. Txekiar telebistarentzat haurrentzako musika saioak antolatu eta sei CD grabatu ditu.

Hilaren 26an Peiyang Chorus (Txina) umeen abesbatza, Txinan dauden kamarako abesbatzen artean ospetsuenetako baten txanda izango da. Hurrengo egunean, berriz, Kataluniako Cor Infantil San Cugat izango da protagonista. Eta programa biribiltzeko, Esloveniako Mixed Chamber Choir Krog sari garrantzitsuak eskuratu dituen abesbatzaren emanaldia izango da. Kontzertu guztiak 20.00etan izango dira eta bakoitzerako sarrerak 3 eurotan egongo dira salgai.




**Txekiako Ondrásek Czek Childrens Choir.**



**Txinako Peiyang Chorus.**

## Txalo antzerki taldeak irekiko du ikasturtea Coliseoan

**GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETAN, EHINGO DIO COLISEO ANTZOKIAK IKASTURTE HONETAKO ANTZERKI SASOIARI,** kalitatezko antzezlan batekin, bere euskerazko bertsoian: Edward Albee-ren 'Ahuntza edo nor da Silvia?'. Txalo Produzioak taldearen eskutik ailegatuko zaigu "komedia sendo eta tragedia hunkigarri hau". Carlos Zabalak zuzendua, testua euskararatzearen arduraduna Julia Marin izan da. Gaur taularatuko duten istorioko pertsonaien azalean ipiniko diren aktoreak, berriz, euskal antzerkigintzan aski eza-gunak diren Ramon Agirre, Ane Gabarain, Asier Hormaza eta Asier Oruesagasti dira. Sarrerak 10 euro balio du eta antzezlanari hasi aurretik, Coliseo-lehiatilan bertan erosteko aukera izango da.



Ane Gabarain eta Ramon Agirre, lanaren protagonista nagusiak.

## laburrak

### TXISTULARIEN KONZERTUA


Usartza Txistulari Bandakoek ohiko martxari helduko diote eta domeka eguerdian kontzertua eskainiko dute. 12.30etatik aurrera Untzagan entzungai izango diren piezak egunerako propio aukeratutakoak izango dira.

### BIODANTZA

Urkiko Arrateko Andra Mari ikastetxeko gimansioan biodantza klase irekia eskainiko dute hilaren 29an, 19.00etatik 21.00etara. Nahi duen guztiak har dezake parte klasean, 10 euro ordainduta. Edozein argibide nahi izanez gero, edo izena emateko, 660084734 telefono zenbakira deitu daiteke (Asun).

### MAKROLEHIAKETA GAZTELEKUAN

Errota Gaztelekuak, urtero bezala, Makrolehiaketa antolatu du. Izen-ematea domekan (hilak 18) zabalduko dute eta hilaren 25era arte egongo da horretarako aukera, Gaztelekuan bertan. Lehiaketa, berriz, urriaren 30ean hasiko da. Lehiaketan izena ematen duten taldeek (taldeak hiru lagunez osatuko dira aurten) bost proba gainditu beharko dituzte: tortila-lehiaketa, Kalamuako Parlamentua, kareta...



## Umeendako zinea Amañara bueltan

**UDAN ATSEDEN HARTU ETA GERO, DOMEKAN, HILAREN 18-AN UMEENDAKO ZINE EMANALDIAK ITZULIKO DIRA AMAÑA KULTUR ARETORA,** Pedro Zelaia kultura baztordeak aditzera eman duenez. Emanaldiak domeka arratsaldeetan izango dira, 17.00etan eta sarreraren prezioari ere eutsi egin diote (2'80 eu-

ro). Denboraldiari ekiteko aukeratu duten pelikula marrazki bizidunetako bat da: 'Up' (Disney-ko Pixar estudioak ekoiztutako produkzioa). Datorren asterako, berriz, 'La montaña embrujada' ematea aurreikusuten dute. Zine emanaldi hauek Amaña kultur aretoan ematen hasi zirela laster 32 urte beteko dira.

## Doaneko ikastaroak Karmen kaleko Kzgunean

**KARMEN KALEKO KZGUNEAK HILERO ES-KAINTZEN DITU INFORMATIKAN TREBATZEKO IKASTAROAK, DOAN.** Gaiei dagokionez, oso eskaintza zabala dago (Blogger, Sare Sozialak, Wikipedia, Google Tresnak, Skype, Youtube...). Horrez gain, IT Txartela eskuratzeko probak egiteko zein administrazioarekin lotutako tramiteak nola egin ikasteko aukera ere badago. Eskaintza osoaren berri izateko zein izena emateko astelehenetik barixakura, 09.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara aurkituko duzue zabalik Kzgunea.



## Klemente M. Correderraren argazkiak Topalekuan

### ARRATE KULTUR ELKARTEAK URRIAREN 20-RA ARTE HARTUKO DU

Klemente M. Corredera argazkilaria bergararraren lanen erakusketa. Asteburuan 12.00etatik 14.00etatik eta 19.00etatik 21.00etara ikus daitezke argazkiak eta aste-gunetan, berriz, 19.00etatik 21.00etara.

Eneko  
Astigarraga

## Eskola 2.0

Ikasturte berria hasi da eta laster Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek Internet eta ordenagailuekin geletan lanean hastea espero da. Ikasleek jasoko dituzten ordenagailu eramangarrien inguruko eztabaida sortu zen, baina zorionez badirudi software libreko aplikazioak erabiliko dituztela eta defaultez linux-ekin eta euskaraz abiatuko direla. Albiste ona. Argi dago, lehen arkatzak, arbela eta boligrafoak bezala, gaur egun teknologia berriak, Internet, ordenagailuak, softwarea, aplikazioak,.... gure bizitza arruntean daudela eta lehenbailehen eskoletan behar ditugula. Bizitzan gertatzen den bezala, hezkuntzan gero eta ageriagoak izan behar ditugu Informazio eta Komunikaziorako Teknologia. Baina arriskutsua litzateke hezkuntzaren berrikuntza geletan teknologia sartu eta ordenagailuetako aplikazioak eta eduki digitalak erabiltzera mugatzea. Kontua ez da bakarrik teknologietan gastatzea eta 2.0 etiketak jartzea: irakasleak funtsezkoak dira. Ordenagailuak ondo daude; irakasleak baino informazio gehiago dute. Ikasleek beste inon baino azkarrago aurkituko dute informazioa ordenagailuetan. Irakasleak izan behar du, teknologia berriak erabiliz, gela koordinatzen duena, ikasketa prozesua eta gela zuzentzen duena. Prestatu zaie horretarako? Egun hauetan arrazoi osoz idatzitako honakoa irakurri dut: "... Komeni da gogoratzea hezkuntzaren benetako erronka oso gutxi aldatu dela: informazioa ezagutza bilakatzea. Hori da betiko helburua eta, hori lortzeko, makinak baino gehiago, pertsonak dira funtsezkoenak". Ordenagailuetan eta softwarean zentratu eta tematu gara; baina, beste askotan bezala, zoritxarrez, gai honetan sakoneko eta epe luzerako hausnarketa falta dela iruditzen zait.

## Eibar Kantuan bihar Astelena frontoian

DEPARKEL DEBABARRENA PARKINSON ELKARTEAK ANTOLATUTA ETA EIBARKO UDALAREN LAGUNTZAREKIN, bihar gauean, 22.30etatik aurrera Eibar Kantuan jaialdiaren edizio berri bat, zazpigarrena ospatuko da Astelena frontoian. Kartela osatzen duten taldeei begira, honezkeroko jaialdian aurretik parte hartu izan dutenak daude: Ventos de Saudade, Los Puma, Duo Placenti, Los Camperos, Mikel Urkola eta Voces y Cuerdas. Euren batera Goruntz abesbatzak jardungo du lehenengoz. Abesbatzako ordezkariak azaldu digutenez, "biharko emanaldian gure ohiko estilotik alden du eta, hainbatek euskeraz abestutako kantak faltan somatzen dituztela-eta, 'Txoria txori' (Mikel Laboa) eta 'Maite' (P. Sorozabal) eskainiko ditugu". 'En mi viejo San Juan' piezarenkin, berriz, jaialdiaren ezaugarri nagusia den Hego Amerikako



## Eibar taldearen inguruko erakusketa

MANDIOLA LAGUNTALDEAK ANTOLATUTA, GAUR BERTAN, 20.00-ETAN INAUGURATUKO DA Eibar kirol elkarte eta taldearen zaletuak protagonista dituen argazki erakusketa Untzagako jubilatuen etxeko erakusketa aretoan. Urriaren 30era arte ikusgai izango den erakusketa hilaren 30era arte ikusi ahal izango da, egunero, 19.00etatik 21.00etara. Argazki erakusketan Eibar taldearen ohiko argazkietatik haratago joan eta zelaitik kanpo, bidaietan eta jai giroko ekitaldietan ateratako irudiak ikusteko aukera paregabea izango da.



Goruntz Abesbatza izango da Eibar Kantua edizio honetako berritasunetako bat.

estiloarekin bat egingo dutela aurreratu digute.

Sarrerek 15 eurotan daude salgai (Pub York, Casino Artista Eibarrés, José Luis kafetegia, Iturri taberna, Agirre elektradenda, Juanito taberna, Agiñaspi, Sayoa, Egoki, Zubi-Gain eta Ongi Etorri).

Borja Rodríguez eta Ana Merche Martínezek aurkeztutako jaialdian Jesús Mari Bilbao 'Bilbo' zenari omenaldia egingo diote, talde guztiek batera 'Eibarko Herria' abestuta.

Sarreren salmentarekin lortutako dirua Deparkel elkartearentzat izango da, urte osoan

eskaintzen duen laguntza eta bestelako zerbitzuekin aurrera egiteko aukera izan dezan. Horrez gain, Nestor Basterretxeak elkarteari emandako litografia-aren lau aleren zozketa egingo dute, kontzertua aitzakiatzat hartuta.

## EUSKARAREN


### EUSKALDUN IZATEA GARESTI EI DAGO ORAINDIK.

Bizkaiko Zubira bisita egin nahi izan du Portugaletako Asti Leku ikastolak eta, azalpenak jasotzeagatik, talde bakoitzak 75 euro gehiago ordaindu beharko dutela erantzun diete. Euskarazko bisitak azpikontratututako gidek eskaintzen dituzte eta hori da eurak kobratzen dutena, frantsesez edo ingelesez jaso nahi dituztenei gertatzen zaien moduan. Bestela, bisitak laguneko balio dituen lau euroak ordaindu eta gaztelaniaz jaso zitzaizkete azalpenak; edo azalpenik gabe zubia ikusteko aukera ere eskaini zieten, bertan jarrita dauden panelak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daudela argudiatuta. Ikasketa buruak bi hizkuntza ofizialtako batean bisita egitea bestean baino garestiagoa izatea ez zuela ulertzen adierazi zienean, umeak Portugaletakoak badira gaztelania ere ulertzen dutenez arazorik ez zutela izango erantzun zieten. Umeak ez dira txango barik geratu eta Metrora egin dute bisita. Hor bai, euskaraz jaso dituzte azalpenak; gainontzekoentzat eredu izan daiteke.

## TXOKOA

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, EIDER, hareñegun 14 urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta ahizparen partez.




Zorionak, IBANE García Zarraua, hareñegun zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Zazpi muxu potolo famelixaren partez.




Zorionak, GORKA Fernández, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta. Zorixonak eta muxu haundi bat osaba Rafael eta izeba Pakitaren partez.



Zorionak, KARLA Olea Etxaide, hareñegun urte bi egin zenduaz-elako. Famelixaren partez.



Zorionak, JAKES, zure lehen urtetxua bete dozulako. Muxu haundi bat aitta, ama. eta gaiñontzeko famelixaren partez.



Zorionak, PERU, sei urte bete dozuzelako. Milla muxu etxekuen eta, batez be, Maddi zure arrebaren partez.

## zineafilmakzinea

**16an, 22.00etan; 17an, 17.00, 19.30 eta 22.30etan**  
**18an, 17.00 eta 19.30etan; 19an, 20.30etan**

### coliseo 1

#### "Desgracia"

Zuzendaria:

Steve Jacobs

Aktoreak:

John Malkovich, Jessica Haines, Eriq Ebouaney, Fiona Press...

### coliseo 2

#### "Mapa de los sonidos de Tokio"

Zuzendaria:

Isabel Coixet

Pertsonaiak:

Rinko Kikuchi, Sergi López, Min Tanaka, Manabu Oshio...

### coliseo 3

#### "La cruda realidad"

Zuzendaria:

Robert Luketic

Aktoreak:

Gerard Butler, Katherine Heigl, Eric Winter, Kevin Connolly...



David Lurie irakaslea izan da Ciudad del Caboko unibertsitatean, baina ikasle batekin izandako harremana dela eta, bota egin dute. Alabaren landetxera joango da bizitzera. Alabak arazo izugarria izango du, eta gauzak okerrago egotea ezinezkoa dirudi...



Ryu neska bakartia da: egunez arrainsaltzaile egiten du, gauzez hiltzaile profesionala da. Midorik bere buruaz beste egin zuen eta erruduna David dela pentsatzen dute Nagara jaunak eta Ishidak. Ryu kontratatuko du Ishidak, David hiltzeko...



Telebistako produktore lana egiten duen emakume batek ez du maitasunik aurkitzen. Berarekin lan egiten duen aurkezleak gizonezkoak erakartzeko moduak erakusten saiatuko da, baina hori egiten dagoela espero ez duten zerbait gertatuko da...

**Umeendako "G-Force" filma ere eskainiko da Coliseoan.**

## DENBORAPASAK

SUDOKUJA

7	9		3			1		
1		3	2	8	5			6
	8						5	
		2					3	
	3	1	6			5		
8			5	1		2		
			7	5				
3	2			6	9			
	6	7			1			

1	5	4	3	0	6	2	7	9
2	8	9	1	7	4	6	5	3
3	7	6	8	5	2	0	1	4
8	6	1	4	9	7	5	3	2
5	9	3	0	2	1	4	6	7
7	4	2	5	6	3	9	8	1
6	3	8	7	4	9	1	2	5
9	1	5	2	3	8	7	4	6
4	2	7	6	1	5	3	9	8

AURREKOAREN EMATZA

### JAOTAKOAK

- Brandston Ali Manguza Bosch. 2009-X-7.
- Nerea Díez Prol. 2009-X-8.

### HILDAKOAK

- Maria Intxaurreaga Ariznabarreta. 95 urte. 2009-X-8.
- Maritxu Muñóz Azpiazu. 86 urte. 2009-X-10.

## horoskopoa

**ARIES**

Bakarrik egoteko gogoa izango duzu. Hainbeste zaratak zoratu egin zaitu azken aldian eta lasaitasunaren bila ibiliko zara. Ea zortea duzun!

**TAURUS**

Itxaron gauzak amaitu arte beste ezer hasi aurretik. Gauzak erdizka lagatzen badituzu, okerrago izango da, ez duzulako ez bata ez bestea egingo.

**GEMINI**

Une zoragarria bizi duzu. Zure begiek igortzen duten distira barruan duzun pozaren seinale da. Ea denbora askoan jarraitzen duzun horrela.

**CANCER**

Zergatik kostatzen zaizu horrenbeste barkamena eskatzea? Harroa zara, harroegia. Akatsak egiten dituzunean horiek onartzea da onena.

**LEO**

Zerbaiten bila ibiliko zara eta, zure zorionerako, aurkituko duzu. Ea aurkitutako horrekin zer egin jakiten duzun. Hori izango da zailena.

**VIRGO**

Askotan entzuten duzu kontu bera. Nazkatuta zaude hori entzuteaz, baina begira, datorren astean aholku hori eskertuko duzu..

**LIBRA**

Ez da sasoi ona ekonomia aldetik eta zuk ederki igartzen duzu. Nolahala moldatzen zara; oraindik ahalegin handiagoak egin beharko dituzu.

**SCORPIUS**

Hari batetik tiraka ibiliko zara eta kontu harrigarriak ezagutuko. Nolako den jendea! Zure inguruan gauza harrigarriak gertatzen dira.

**SAGITTARIUS**

Zaren modukoa zara eta hori zaila da aldatzen. Gainera, zertarako aldatu? Besteak dira ulertzen ez zaituztenak, moldatu daitezela eurak.

**CAPRICORNIUS**

Bizitzak buelta asko ematen ditu eta gaur zuria dena bihar beltza izan daiteke. Zein kolore dauka bizitzak? Ortzadar itxura hartzen diot nik.

**AQUARIUS**

Goseti ibiliko zara. Bapo jan ostean gosea izango duzu oraindik. Zergatik ote? Kiloren bat edo beste hartuko duzu horrela jarraituz gero.

**PISCIS**

Makal, gaixo ibiliko zara egunotan. Ez da ezer larria izango, baina hobe duzu ondo zaintzea, bestela txarrera joango da gaixotasuna-eta.

**Barixakua 16****LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**ANTZERKIA**

**20.30.-** 'Ahuntza edo nor da Silvia?' (Txalo). Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

**Zapatua 17****IRTEERA**

**08.30.-** Galiziako Etxekoan txangoa, Zugarramurdi, Bera eta Ibardin-era.

**LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**SOSTOA EGUNA**

**12.30.-** Sostoa Abesbatza eta kide ohiak Portalean (erakusketa aretoan) elkartuko dira, gero txikiteoan ibili eta Arrate hotelean bazkaltzeko.

**KONTZERTUA**

**22.30.-** Terror y Miseria, Kaosaren Erasoa eta Karkaba. Tallarra Gaztetxean.

**EIBAR KANTUAN**

**22.30.-** Eibar Kantuan jaialdia: Ventos de Saudade, los Puma, Duo Plaentxi, Los Camperos, Mikel urkola, Voces y Cuerdas eta Gorantz abesbatza. Sarrera: 15 euro. Astelena frontoian.

**diru-laguntzak****UMEAK ESKOLARA 2009.**

Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaioetako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

**DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.**

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaioetakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

**Domeka 18****FINALISTAREN EGUNA**

**09.00.-** Eskolarteko XXII. mendi lehiaketa. Mendi ibilaldia, oparien zozketa eta sarien banaketa. Arratetik irten eta Arratera buelta.

**NAFARROA OINEZ**

**09.30.-** Nafarroa Oinezera joateko autobusa. Ego Gainetik.

**LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzaga plazan.

**UMEENDAKO ZINEA**

**17.00.-** 'Up'. Sarrera: 2'8 euro. Amaña Kultur Elkartearen.

**Astlehena 19****LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**Martitzena 20****IKASTEN**

**10.00.-** Zinema eta telebista lengoaia. Hizlaria: Victor Iriarte. EPAn (Isasi, 39).

**LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**IKASTAROA**

**19.30.-** Kultura, heziketa eta askatasuna. Hizlaria: Patxi Meabe. Portalean.

**Eguaztena 21****LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**Eguena 22****IKASTEN**

**10.00.-** Artearen Historia: Errenazimendua. Hizlaria: Cristina Ayuso. EPAn (Isasi, 39).

**LIBURU AZOKA**

**11.00etatik aurrera.-** Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

**ANTZERKIA:**

'Ahuntza edo nor da Silvia?'. Urriak 16, 20.30.

**JAZZ:**

Miguel Salvador Project. Urriak 23, 20.30.

**laster salgai****MUSIKA:**

Omdrásek Czek Children Choir. Urriak 26, 20.30.

Peiyang Chorus. Urriak 29, 20.30.

Coro Infantil San Cugat. Urriak 30, 20.30.

Mixed Chamber Choir Krog. Azaroak 1, 20.30.



2009/10/16 OSTRALA	2009/10/17 LARUNBATA	2009/10/18 IGANDIA	2009/10/19 ASTELEHENA

## erakusketak

- **Urriaren 20ra arte**  
**CLEMENT**-en argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- **Urriaren 25era arte**  
**SOSTOA ABESBATZA**ren XXV. urteurrena. *Portalean.*
- **Urriaren 30era arte**  
**EL EIBAR Y SU AFICION** argazki erakusketa. *Untzaga Jubilatuen Etxean.*
- **Urriaren 31ra arte**  
**ANGEL BOLUNBURU**ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
- JOSE ANTONIO GONZALO HERNANDEZ**en argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- MIKEL OROZKO**ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

## ikastaroak

- **Espereintzia Eskola.**  
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.
- **UEUko Udazkeneko ikastaroak.**  
Izen-ematea eta informazioa: www.ueu.org helbidean edo 943821426 telefono zenbakian.
- **Berbetan.**  
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kittol! Elkartearen (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakian.
- **Itsas-patroi ikastaroa.**  
Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: Eguzki Jaia itsas akademia (www.eguzkijaia.com) edo 616175672 telefono zenbakian.
- **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa.**  
Non eta noiz: Urriaren 26tik abenduaren 17ra arte, 15.00etatik 16.00etara, Ipuruako jubilatue txean. Izen-ematea: Urriaren 16ra arte. Pegoran.
- **Berdintasun harremanak.**  
Non eta noiz: Azaroaren 2tik abenduaren 21era, astelehenetan, 18.00etatik 20.00etara, Andretxean. Izen-ematea: Urriaren 23ra arte. Pegoran.

## famaziak

- 16, barixakua**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 17, zapatua**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 18, domeka**  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 19, astelehena**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 20, martitzena**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 21, eguaztana**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 22, eguena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 23, barixakua**  
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)  
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)

## lehiaketak

- **Sanandresak 2009 kartel lehiaketa.**  
Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **San Andres bertso-paper lehiaketa.**  
Lanak aurkezteko epea: Azaroak 6ra arte. Informazioa: ...eta kittol!-n (Urkizu, 11 - solairuartea), 943200918.
- **Debako Kultur Elkartearen 50. urteurrenaren logotipoa.**  
Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte (J.M. Ostolaza, 12. 20820 Deba). Informazioa: www.ostolaza.org
- **Makrolehiaketa Errota Gaztelekuan**  
Lanak aurkezteko epea: Urriak 25era arte. Txapelketa urriaren 30ean hasiko da, Gaztelekuan.

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egunerok: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egunerok: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.00etara orduerdiko). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etik 21.55-etera orduerdiko. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

## tren ordutegiak

- EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egunerok: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, jangela, komuna eta ganbara. Teilatu eta fatxada berriak. 200.000 euro. Tel. 627-635247.
- Amañako W. Orbean pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Balkoi bi. Eguzkitsua. 28.500.000 pta. Tel. 943-120254.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 690-980846.
- Pisua alokagai Bidebarrieta, 28an. 2 logela. Kanpora begira. Tel. 652-764566. Begoña.
- Osakidetzako langileak Eibarren logela hartuko luke alokairuan. Tel. 692-114352. Karnele.
- Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.
- Eibarren edo inguruan borda, txabola edo baserria alokatu edo erosiko nuke. Tel. 670-272714. Jon.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789.
- Emakume batek Eibarren edo Ermuan pisua hartuko luke alokairuan. Altzaririk gabe. Tel. 616-746257.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Janaridenda lagatzen da erabilerarako. Tel. 649-744187.
- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

### 3.2. Alokagai

- Lokala alokagai Eibarren. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta sarrera onarekin ibilgailuaren zatitza. Tel. 605-771570.
- Garaje marra alokagai Urkizun. Tel. 609-453946.
- Garaje itxia alokagai Arrate Bide, 17an. 80 euro hilean. Tel. 679-310083 edo 943-701631. Alejandro.
- Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin. Prezio interesgarria. Tel. 630-391112.
- Urtzailen lokala alokagai (sotanoa). 66'80 m<sup>2</sup>. Tel. 943-208555.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 655-384477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 636-172765.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo konponketa lanetarako. Tel. 680-674323.
- Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 687-114707.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu, sukaldari laguntzaile edo tabernetan lan egiteko. Tel. 608-401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-132117.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600.
- Mutil euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-252957.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 680-463892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 616-397348.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 625-048037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
- Haur Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldean. Esperientzia. Tel. 626-752117.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu, gaixoei gaua pasatu (ospitalean edo etxean) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-174654.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da, gidatzeko C karnetarekin (makinista, atzerakako hondemakina eta pala). Esperientzia. Tel. 627-611243.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-897639. Shirley.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 699-221092.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-018538.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldean eta gauez. Tel. 671-972733.
- Gizona eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-474923 edo 943-171583.
- Gizona eskaintzen da obretan jarduteko (edozein lan). Tel. 671-358513.
- Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko. Interna. Tel. 697-381673.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 671-742142.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-383471.

### 4.2. Langile bila

- Elgoibarko Izarra elkarteak euskera teknikaria behar du. Tel. 943-741746. Amaia.
- Laguntzailea behar da Ermuko hortz-klinika baterako. 18.30etatik aurrera. Tel. 615-724810.
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- LH eta DBHko klase partikularrik ematen dira euskaraz. Tel. 636-252957.
- Euskarazko klase partikularrik ematen dituzte, EGA eta perflak prestatzeko. Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak klase partikularrik emango lituzke. Tel. 617-844142.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Umeendako kotxe-silla eta maxi-coxia salgai. Arrue markakoa. Urdina. Egoera onean. Tel. 616-327019.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Irailaren 26an (zapateria) botoidun jertse beltza galdu nuen Bidebarrietan, San Andres eskolaren parean. Tel. 687-472084. Ane.

DEITU. 943 20 67 76  
943 20 09 18

Argazkidendak • Argiztapenak • Arzteak • Arzteak • Arzaindegia •  
• Aseguruak • Aseoriak • Autokar • Autokar • Autokar • Autokar •  
• Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bixitegiak • Bulego tresneria  
• Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkarteak •  
Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoak • Este-  
tika • Farmaziak • Ferreteriak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-  
riak • Garagardotegiak • Garraioak • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozo-  
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Hautzaindegia • Euskaltegiak •  
Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegia • Industria • Informa-  
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jantxidendak •  
Jatetxeak • Jostailudendak • Kafetegiak • Kalefakzioa • Kiroidendak • Kol-  
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpresoreak • Konstruk-  
zioa • Kristaldegia • Leihoak • Lenzeria • Liburudendak • Loradendak •  
Makina saltzaileak • Margoak • Makinak • Masajeak • Medikuntza • Ana-  
lisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozimenduak  
• Fisioterapia • Logopedak • Oftalmologia • Otorrinoak • Podologia •  
Psikiatria • Psikologia • Mertzerial-  
giak • Optika • Ortopedia • Pertsia-  
• Prentsa eta aldizkariak • Publizitate  
Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta  
terapiak • Torrijugintza • Zeramika •

Zure aukera bakarra!

**2010eko**  
**GIDA**  
**prestatzen**  
**dihardugu...**



**Klase teoriko  
zein praktikoak**  
norberak nahi  
dituenean

Klase teorikoak  
**ikusentzunezkoen  
abantailak**  
erabilita

Merkantziak  
eta bidaiariak  
garraiatzeko  
**nazioarteko**  
agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**GIDATZEKO  
KARNET  
GUZTIAK**

**SOLOZABAL**  
autoeskolak

**Estaziño kalea, 8  
Tel. 943 70 23 78**

**BERRIA: T. Etxebarria, 7      Tel. 943 70 23 84**



eibartarren  
irribarrea pizten

 **bista eder**  
clinica dental - hortz klinika

**Inplantologia eta Estetika**

Bista Eder Hortz Klinika

bista eder, 19 - behea

943 70 00 82 / 943 20 84 75